



Bertha Cáceres txartelean, eta Romero monsinorea kamisetan. Orlando SIERRA | AFP

Caceresen familiak, Estatuaren aurkako salaketa aurkezteaz gain, nazioarteko ikerketa egitea exijitzen du, Hondurasko Justizia Administrazioaz ez baita fidatzen

Global Witness erakundeak iaz egin zuen txostenaren arabera, Honduras ingurumenaren aldeko ekintzaile gehien hiltzen dituzten herrialdea da: 111 hildako 2002tik 2014ra

arazoaren zati bat baino ez dira, hedabideak, enpresetako elitea eta aginte egitura ere konplize dira-eta».

Silvio Carrillo AEBetan bizi da, Kaliforniako Oakland hirian. Izeba hil zutela jakin zuenean etxekoekin hitz egin zuen, baina, Honduraseran joan beharrean, Washingtonera joatea erabaki zuen, «Bertitaren mezua eramatera». Astelehenaz geroztik makina bat bilera egin ditu AEBetako Estatu Departamentuan, senatarien bulegoetan, Amerikako Estatu Erakundearen idazkaritzan... Horiei guztiei esan die Tegucigalpako ikerlariak egin duten lana ez dela on-tzat emateko modukoa.

NAZIOARTEKO OMENALDIA

Joan den larunbatean ehortzi zuten Bertha Cáceres La Esperanza jaioterrian. Milaka lagun elkartu ziren ekintzaileari azken agurra egiteko. Brasileko, AEBetako, Suitzako, Mexikoko eta beste herrialde ugarietako ekintzaileak ere bertaratu ziren, len-

ka herriaren burua oso ezaguna baitzen Hondurasetik kanpo ere. Manuel Zelaya Hondurasko presidente ohia (estatu kolpe batek kendu zuen kargutik 2009an) ere joan zen Caceresen amaren etxera, hildakoaren gaubelara.

Jatorriko herri bateko kide izanda, lenka herriko alaba izanik, horrenbesteko oihartzuna izatera iristea ez da erraz ulertzen, Bertha Cáceresekin berarekin egon ez bazara behintzat. Maria Mercedes Gomezek, esaterako, mobilizazio eta jarduerak askotan esku hartu zuen Cáceresekin batera. Gomezek esplikazioen arabera, Cáceresek Santa Barbara departamentuko Agua Zarca komunitateko herritarrei lagundu zien beren burua antolatzen, urtegiak egiteko proiektuei aurre egiteko. Hasiera bateko protestak Txinako konpainia baten aurkakoak izan ziren. Alemaniatik eta Munduko Bankutik ere iritsi zen orduan dirua, eskualdea garatuko omen zuen proiektua aurrera ateratzeko.

LANGILEEN ESKUBIDEAK ETA TXINAKO ENPRESA PUBLIKOA

Sinohydro konpainia Pekinen eratu zuten 1950ean. Mundu osoko ingeniariak konpainien artean 14. postuan zegoen 2012an. Sinohydrok aurrera ateratako proiektuen artean ageri da Hiru Arroietako presa, planeta osoan egin den proiektu hidroelektrikorik handiena. Argindarra sortzeko ahalmen handiena duen ur indarretxea da, 22.500 gigawatt sortzeko gai baita (Txinako energia beharren %9). Peruko San Jose izeneko proiektu hidroelektrikoa ere Txinako konpainiaren esku geratu da, baina bertako langileek sekulako arazoak izan dituzte beren lan baldintzak hobetu zituzten. Hiru aldiz agindu die Sinohydrok gauzak hobetuko zituela, baina kostatzen zaio agindutakoa betetzea.